# 107/2012 DEKRETUAREN BITARTEZ, 187 PERTSONARI AITORTU ZAIE 1960 ETA 1978 BITARTEAN BOTERE ABUSUEN EDO POLIZIAK INDARKERIA LEGEZ KONTRA ERABILTZEAREN ONDORIOZ GIZA ESKUBIDEEN URRAKETEN BIKTIMA IZATEA

- **107/2012 Dekretuaren Balorazio Batzordeak txosten bat bidali du Legebiltzarrera, 1960 eta 1978 arteko giza eskubideen onartutako urraketen xehetasunekin**
- **Lehendakaria 107/2012 Dekretuak aitortutako biktimen omenezko ekitaldi instituzionalean izango da larunbatean**

1960 eta 1978 urteen artean botere abusuen edo poliziak indarkeria legez kontra erabiltzearen ondorioz izan ziren giza eskubideen urraketen Balorazio Batzordeak 187 biktima aitortu ditu. Legebiltzarrera bidalitako txosten batean, Batzordeak azken hiru urte eta erdietan Dekretuaren alorrean aurkeztu eta onartu diren eskaeren zerrenda aztertu du. Lehen aldiz, biktima horiek omentzeko ekitaldi instituzional bat egingo da, larunbat honetan (otsailak 20) Donostian, eta Urkullu lehendakaria han izango da.

## Kasuen balantzea

Aurkeztu diren 239 kasuen % 80k lortu du biktima-aitortza, 107/2012 Dekretuaren babespean. Aitortutako biktimak honela banatzen dira:

- Kasuen % 16 Estatuaren segurtasun-indarrek suzko armak erabiliz eragindako heriotzak dira, gehienak manifestazioetan, errepideko kontroletan edo kaleko istiluetan, besteak beste.
- Kasuen % 30 lehen aipatutako egoeretan zauritutako pertsonak dira.
- Kasuen % 7 manifestazioak desegiteko gailuek zauritutako pertsonak dira.
- Kasuen % 36 atxilotu eta gero komisarian tratu txarrak eta torturak jasan dituzten biktimak dira
- Gainontzeko % 11 bestelako gertakari edo egoeretan gertatutako kasuak dira.

Batzordeak 52 eskabide ezetsi ditu, ez giza eskubideen urraketen biktima ez izateagatik, forma-arrazoiengatik baizik. Erdiak ez ziren aztertutako aldiko kasuak eta gainerakoak epez kanpo aurkeztu ziren.

## Balorazio Batzordea:

Biktima horiek aitortzeko 107/2012 Dekretuaren 6. artikuluak Batzorde bat sortzen du, aurkeztutako eskaerak izapidetzeko eta baloratzeko. 2012ko ekainaren 20an sortu zen Batzordea, eta ordutik hona 73 bilera egin ditu, 210 pertsonaren testigantza bildu du eta 239 irizpen eman ditu. Gaur bertan Legebiltzarrera bidali den txostena aurrerapen bat baino ez da. 2016 urtean zehar osatuko da eta egindako lanaren eta biktimen esperientziaren berri emango du.

## Ekintza motak

Txostenean zehazten dira giza eskubideen urraketa horien ezaugarriak: bereizketarik eza eta nahitasuna, indarkeriaren eta giza eskubideen urraketen zabaltasuna, segurtasun-falta eta bizitzarako arriskua eta babes-falta eta zigorgabetasuna. Batzordeak giza eskubideen urraketa horiek gertatu diren testuinguruak deskribatzen ditu:

- Manifestazioak eta indarraren gehiegizko erabilera: atal honetan 31 kasu aztertu dira.
- Atentatuak: 4 kasu aztertu dira.
- Errepideko kontrolak: 7 adibide identifikatu dira

- Atxiloketa arbitrarioak eta torturak: 72 kasu aztertu ditu Batzordeak.
- Sexu-indarkeria: bortxaketa kasu bat eta hainbat sexu-eraso aztertu eta onartu dira.

**Testuinguru historikoa**

Erregimen frankistak protesta eta oposizio politiko ororen kontrako errepresioa areagotu zuen 60ko hamarkadan. Ordena Publikoaren Epaitegia 1963an sortu zen erregimenaren aurkako oposizioari jazartzeko. Diktaduraren errepresiorako instrumentu garrantzitsua izan zen, gerra-kontseilu sumarioekin batera. Aztertutako kasu gehienak 1975tik 1978ra arteko aldian eragindako biktimei buruzkoak dira; Batzordera aurkeztutakoen artean, 1976 urtean eragin ziren biktima gehien; batik bat, Gasteizko martxoaren 3ko gertakariengatik.

**Gomendioak**

Batzordearen txostenean gomendio batzuk biltzen dira giza eskubideen urraketen biktimak aitortzeko eta haiei ordainak emateko politika publikoak era egokian egin daitezen:

1. Lehenbailehen osatzea gaur egun arteko motibazio politikoko giza eskubideen urraketen biktimak aitortzeko eta haiei ordainak emateko araudia.
2. Omenaldi publiko bat egitea eta biktimak antolatzen diren memoria-ekitaldietara gonbidatzea.
3. Batzordeak nabarmentzen du garrantzitsua dela biktimak aitortzeko eta haiei ordainak emateko martxan jartzen den edozein prozesuk beharrezko giza baliabideak eta baliabide materialak izatea. Gisa honetako beste edozein prozesu diseinatzerakoan, alor hori kontuan izatea gomendatzen du.

**Vitoria-Gasteiz, 2016ko otsailaren 18a**

# EL DECRETO 107/2012 HA PERMITIDO RECONOCER A 187 PERSONAS COMO VÍCTIMAS DE VULNERACIONES DE DERECHOS HUMANOS CAUSADAS POR ABUSO DE PODER O USO ILEGITIMO DE LA VIOLENCIA POLICIAL ENTRE 1960 Y 1978

- **La Comisión de Valoración del Decreto 107/2012 sobre víctimas remite al Parlamento un informe detallando los casos de vulneraciones de derechos humanos reconocidos**
- **El lehendakari presidirá el sábado un acto de reconocimiento institucional a las víctimas amparadas por el Decreto 107/2012**

La Comisión de Valoración del Decreto 107/2012 de reconocimiento y reparación de víctimas de vulneraciones de derechos humanos causadas por abuso de poder o uso ilegítimo de la violencia policial producidas entre 1960 y 1978 reconoce a 187 víctimas. En un informe remitido al Parlamento Vasco, la Comisión analiza el trabajo elaborado durante tres años y medio en relación a las solicitudes recibidas y reconocidas en el marco del Decreto. Por primera vez se realizará un acto de reconocimiento institucional a estas víctimas en su conjunto el sábado 20 de febrero en Donostia que estará presidido por el Lehendakari Urkullu.

## Balance de casos

De las 239 solicitudes presentadas, el 80% han obtenido el reconocimiento de la condición de víctima al amparo del Decreto 107/102. Del total de las víctimas reconocidas corresponden a estos casos:

- el 16% corresponde a muertes como consecuencia de armas de fuego por parte de fuerzas de seguridad del Estado especialmente en manifestaciones, controles de carretera o altercado, entre otros
- el 30% se trata de personas heridas por armas de fuego en circunstancias parecidas a las expuestas anteriormente
- un 7% son personas heridas por artefactos utilizados para disolver manifestaciones
- un 36% se trata de víctimas de malos tratos y torturas en detenciones en comisarías
- el restante 11% se trata de casos de otras circunstancias o hechos.

La comisión ha desestimado 52 solicitudes no porque no se traten de víctimas de violaciones de derechos humanos sino por motivos formales.

## Comisión de Valoración

El Decreto 107/2012 de reconocimiento a estas víctimas prevé en su artículo 6 la creación de una Comisión que se encarga de tramitar y valorar las solicitudes presentadas. Desde su creación el 20 de junio de 2012, la Comisión se ha reunido en 73 ocasiones, ha recogido el testimonio de 210 personas y ha elaborado 239 dictámenes. El informe remitido hoy mismo al Parlamento se trata de un avance que se completará durante 2016 y dará cuenta del trabajo realizado y la experiencia de las víctimas.

## Tipos de hechos

En el informe se detallan las características de estas violaciones de derechos humanos: indiscriminación e intencionalidad, amplitud de la violencia y las violaciones de derechos humanos, inseguridad y riesgo vital, y falta de protección e impunidad. La Comisión describe los diferentes contextos en los que se han dado estas violaciones de derechos humanos:

- Manifestaciones y usos excesivo e indiscriminado de la fuerza: se han analizado 31 casos en este apartado.
- Atentados: 4 casos analizados.
- Controles de carretera: 7 identificados
- Detenciones arbitrarias y torturas: 72 casos analizados por la Comisión.
- Violencia sexual: analizado y reconocido un caso de violación y varios casos de agresión sexual.

**Contexto histórico**

El régimen franquista incrementó su represión en los años 60 contra cualquier protesta y oposición política. El tribunal de orden Público formado en 1963 para la persecución de los delitos vinculados a la oposición al régimen, junto a los consejos de guerra sumarísimos, se convirtieron en los instrumentos represivos más importantes de la dictadura. El número mayor de casos analizados se concentra en el periodo de 1975 a 1978, siendo las solicitudes correspondientes a 1976 las más numerosas, debido, principalmente, a los sucesos del 3 de marzo en Vitoria-Gasteiz.

**Recomendaciones**

El informe elaborado por la Comisión ofrece las siguientes recomendaciones para el adecuado desarrollo de las políticas públicas de reconocimiento y reparación a las víctimas de vulneraciones de derechos humanos:

4. Completar cuanto antes la normativa que permita el reconocimiento y reparación de todas las víctimas de vulneraciones de derechos humanos producidas en un contexto de violencia de motivación política hasta la actualidad.
5. La realización de un acto público de reconocimiento y la incorporación de estas víctimas en actos de memoria que se celebren.
6. La Comisión pone de manifiesto la importancia de que cualquier proceso de reconocimiento y reparación futuro cuente con los recursos humanos y materiales apropiados. Recomienda que esta cuestión se tenga en cuenta la hora de diseñar cualquier nuevo proceso de este tipo.

**Vitoria-Gasteiz, 18 de febrero de 2016**